Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

391

Otsailak 15, 2021

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Berri laburrak
4 Asun Casasola Berdintasuna Amets
5 Lehen mailako arreta
6 ZiztaKA
7 Behobiako merkatariak
8 Kirolak: Kirol Irundarraren Sariak
9 Kirolak: Bidasoa
10 ACUBI
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Compraiders
14 iGazte
15 Agenda

Janeth Carreño
Koordinatzailea
667 94 04 05

caser cuidados

INFORMA ZAITEZ!

Etxez etxeko laguntza

EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean

EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra

EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
-Egoitzan
-Enpresan

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko otsailaren 20ean Irunen argitaratutako El Bidasoa aldizkariak orain dela 100 urte hiriaren errealitatea zein zen erakusten du. Aldizkariko lehen idatzian hirian jokoarekiko zaletasunak azkenaldian gora egin duela eta arazo batean bihurtzen hasi dela salatzen da. Jarraian Pepitok sinatutako artikuluan, Kasinoko festa batean gertatutako pasartea laburbiltzen du. "Las `Pannes ´ de D. Leonardo" tituluarekin hasten den testua lagun talde batek hiriko kale ezberdinetatik igaro ostean auto batekin izandako anektoda kontantzen du Snosky-k, irakurleak entretenitzeko helburuarekin.

Aldizkariaren bigarren orrialdearen hasieran kirol kronika da protagonista, aurreko igandean Amuteko zelaian Real Union eta Realaren arteko partiduak utzitako detaileak laburbiltzeko. Hortaz gain, Esperanza taldearen aurka irundarrek jokatuko duten hurrengo partiduaren xehetasunak ematen dira. "Buzón del Bidasoa" atalaren barnean irakurleek "El Bidasoa" aldizkariaren erredakziora bidalitako hainbat gutun erantzuten dira. Hurrengo artikuluan, tituluan bertan adierazten denez, Irungo alkateari zuzendutako idatzian hiriko suhiltzaile zerbitzua hobetzeko auziaren inguruko eztabaidaren jarraipena irakur daiteke. Ondoren, Txiletik kolaboratzaile batek bidalitako istorio luzearen pasarte berria irakur daiteke, istorioaren amaiera guztiz argitzen ez bada ere.

Hirugarren orrialdearen hasieran trenbideko langileen elkarte eta entitate ezberdinekin zerikusia duten gaien berri ematen da. "Notas municipales" atalean azken udal bilkuran hartutako erabakiak bildu eta bilkuran eztabaidatutako gaiak biltzen dira. Aldizkaria publizitatez beteriko orrialdearekin amaitu aurretik, jada aski ezagunak diren "Ecos de sociedad" eta "Noticias" atala osatzen duten berri laburren bilduma irakur daitezke.

Argazkiak:

G55588: Trenbideetako langileak eta hainbat gizon bizikletekin Gaintxurizketako gianean XX. mendearen hasieran, horien artean Vicente Zaragüeta-Camino ageri delarik.

G57778: Trenbideen zeharkatzen dituen Colón pasealekuko zubia, lehen planoan Trenbideko Langileen eraikina ageri delarik 1926. eta 1930. urteen artean hartutako irudian.

G37893: Irungo Kasinoaren egoitza berriaren inaugurazioa 1931ko ekainaren 27an.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Arbes-Palmera Montero eta Belaskoenea eremuak TAO sisteman sartuko dira 2021ean

Apirilean, kontratu berria lehiaketara atera eta esleitu ostean, TAO sistemaren eta Pio XII-ko aparkalekuaren kontratu berriak indarrean jarriko dira. Kontratu berriak egungoaren eskemari jarraitzen dio, baina iraupena laburragoa izango da, bi urtekoa, eta urtebetez luzatu ahal izango da kontratua, gehienez ere hiru urtez.

Urteko gehieneko aurrekontua 1.836.353 eurokoa da. Kontratuaren ildo nagusien artean araututako plazen lau tipologiak mantentzen dira. Kontratu berria abian jartzen denean, 5.544 plaza izango dira: 1.418 plaza urdin, 3.957 plaza berde eta 23 plaza gorri. Egoiliarrentzako plaza zuriak 146 ere izan daitezke, eta 148 plaza izatera irits litezke.

Eremu berriak

Berrikuntza nagusiak TAO sisteman sartzen diren eremu berrietan daude: Belaskoenea eta Arbes-Palmera Montero. TAO eremu berri horietako auzo-elkarteekin partekatu dira erabaki horiek. Belaskoenea auzoaren kasua berezia da, orain arte sistemaren barruan baitzegoen (Pio XII.aren ondoko 4. eremua), baina ez osorik. 2020an okupazio handia zegoela zehazten zuen azterlan bat egin ondoren, kontratu berriak eremu berri bat osatzen du, 13. eremua, auzo osoa hartzen duena, Burniola eta Gobaragin kaleetaraino. Auzo Elkartearen eskaera bat da, arautu gabeko eremuko aparkaleku-defizitaren beharrei erantzuteko.

Hauek dira José Egino kaletik aurrera eremu berria osatuko duten kaleak: Aduana, Alberto Larzabal, Alondiga, Arkale, Armagile, Arturo Campion, Balezale, Larrugin, Gabarrari, Mosketero, Mariñel, Nekazari eta Burniola.

Arbes-Palmera Monteroren kasuan, 2017az geroztik egin ziren eta 2018. urtean auzora aurkeztu ziren azterlanen emaitzak hartu dira kontuan. Ondorioen artean, eremu horietako aparkalekuen okupazio handia ikusi zen. Gainera, azterketak ibilgailuen matrikulak detektatu zituen, eta, horri esker, aparkatutako ibilgailuaren jatorria zein zen jakin ahal izan zen. Astegunetan, gutxi gorabehera, aparkatutako autoen heren bat auzokoa zen, beste heren bat Irungoa eta beste heren bat hiritik kanpokoa. Azterketak beste alderdi garrantzitsu bat ere zehaztu zuen: ibilgailuen txandakatzea. Astegunetan, ibilgailuen %21 ez da mugitzen egun osoan; asteburuan, berriz, %30 baino gehiago mugitzen dira.

Eremu horretan sartzen diren kaleak hauek dira (betiere Nafarroa hiribidea abiapuntu hartuta): Alzukaitz, Antonio Valverde, Arbesko Errota, Uztapide Bertsolaria, Casto Cantero, Dunboa, Enkantia, Erlaitz, Ermita, Esteban Pérez de Yerobi, José Antonio Loidi Bizkarrondo, Juan Luis Seisdedos, Juan Thalamas Labandibar, Juan Vollmer, Meazuri, avda. Nafarroako hiribidea, Arbesko Errotaren atzeko aparkalekua, Ricardo Alberdi, Uranzu.

Mugikortasuneko ordezkariak gogorarazi duenez, TAO-rekin batera, Udalak ere aintzat hartzen ditu hiriko eremu horretako aparkalekuarekin lotutako gaiak, eta, horretarako, azalaren gaineko plaza gehiago sortzen ditu, ahal denean. Borja Olazabal Mugikortasun ordezkariak Bienabe Artiako aparkalekua handitzeko obrak eta Belartzako aparkalekuaren proiektua erabili ditu adibide gisa.

Hiru saio telematiko antolatu dira Emakumeen Etxearen proiektuaren hurrengo urratsak zehazteko

Udaleko Berdintasun arlotik Irungo Emakumeen Etxea ahalik eta azkarren gauzatzeko konpromisoarekin bat eginez, parte hartze prozesua egungo egoerara egokitzea beharrezkoa izan da. Gauzak horrela, Emakumeen Etxearen proiektuaren inguruan urrats berriak emateko martxoan hiru saio egingo dira formatu telematikoan.

Pandemiaren bilakaera ikusita, Irungo Emakumeen Etxea diseinatzeko partaidetza-prozesuaren talde eragileak, azaroan online egindako bileran, prozesua aldi baterako eten behar zela erabaki zuen. Izan ere, proiektua aurrez aurre egitea ezinezkoa zela ikusita, urtearen hasieran egoera berrikusteko konpromisoa hartu zen.

Lehenbailehen urrats berriak emateko konpromisoa berresteko, saioak online egiteko hiru data zehaztu dira. Lehen saioa martxoaren 11ean egingo da, etxearen kudeaketarekin loturiko gaiak argitzeko. Martxoaren 18an egingo den bigarren saioan, aldiz, Irungo Emakumeen Etxeak izan ditzakeen erabilera ezberdinen inguruan gogoeta egingo da. Azken saio telematikoa, berriz, martxoaren 25ekoa izango da eta Emakumeen Etxeak izan beharreko ekipamenduen inguruan hausnartuko da. Saio guziak arratsaldeko 17:30etan hasiko dira eta gehienez bi ordu eta erdiko iraupena izango dute.

Guzitra, 80 dira Irungo Emakumeen etxearen sorreran parte-hartzeko izena eman duten emakumeak. Horregatik, datozen egunetan zehar antolatzaileak parte-hartzaile guztiekin harremanetan jarriko dira, saio telematikoetan parte-hartzeko behar informatikorik duten jakin eta saioei begira zein hizkuntza-lehentasun duten jakiteko. Miren Echeveste Berdintasun ordezkariak azaldu duenez asko dira prozesuan eztabaidatu beharreko gaiak. Momentuz online saioen bitartez landuko diren hiru gai horiek argitzeari ekingo zaio eta, aurrerago, Berdintasun arlotik proiektuarekin aurrez aurre jarraitzeko aukera izatea espero da.

Bide telematikoak etendura saihesteko

Miren Echeveste Berdintasun arloko ordezkariak jakinarazi duenez, Emakumeen Etxearen proiektua garatzeko urratsak ematen jarraitu nahi da. Era berean, proiektuaren garapenerako hurrengo urratsak osasun krisialdia dela eta indarrean dauden murriztapenak errespetatuz egingo direla baieztatu du Berdintasun ordezkariak. Miren Echevestek adierazi duenez, "argi eta garbi ikusi dugu prozesua berriz ere martxan jartzeko modu bakarra online egitea da".

Egungo egoera kontutan hartuta prozesuaren garapena aurrez aurre egitea ezinezkoa dela ikusi ostean, Berdintasun Zerbitzuak mahai gainean zeuden aukera guztiak aztertu zituen. Aukera horien artean prozesua bertan behera uzteko erabakia ere eztabaidatu zen, pandemiak berriko proiektuari ekiteko aukera eman arte. Prozesua modu telematikoan gauzatzea konplikatuagoa izango bada ere, Berdintasun arlotik prozesuaren hurrengo urratsak modu telematikoan emateko aukera probatu nahi izan da Emakumeen Etxearen proiektu guztiz eten ordez. Izan ere, saioak online egin arren, emakume guztiek parte hartzeko konpromisoari eutsi nahi zaio. Dena den, prozesuak online behar bezala funtzionatzen ez duela ikusiko balitz, edozein unetan proiektua eteteko aukera dagoela gogoratu du Miren Echevestek.

Bestetik, otsaileko hilabetearen hasieran prozesuan izena eman zuten emakume guztiei posta elektronikoz Euskadiko Emakumeen Etxeen esperientzei buruzko dokumentua helarazi zitzaien. Helburua online saioen aurretik parte-hartzaileek dokumentua irakurrita izatea da, inguruko emakumeen etxeetan zer egiten den eta nola funtzionatzen duten jakin dezaten. Miren Echevestek adierazi duenez, hurbileko beste esperientzia batzuk ezagutzeak Irungo Emakumeen Etxea zer izan daitekeen eta parte-hartzaileen nahiak zehazteko lagungarria izan daiteke.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irungo Berritzeguneak eta Parean elkarteak indarrak batu dituzte Asun Casasola Berdintasuna Amets ekimenean

Berdintasuna Amets berdintasuna eta genero indarkeriaren kontrako baloreak sustatzeko asmoa duen ekimena da. Laugarren edizioan, Irungo Berritzeguneaz gainera, Asun Casasola Ipuin Labur Lehiaketako antolatzaileak batu dira, Bidasoa eta Oarsoaldeko ikasleen parte-hartzea bultzatzeko.

Elkarlanaren emaitza gisa Berdintasuna Amets ekimena Asun Casasola Berdintasuna Amets izena izango du aurrerantzean, bi eragileen arteko kolaborazioa irudikatzeko. Ekimenaren izena aldatu arren, hasiera batean Irungo Berritzegunetik bultzatutako ekimenaren helburu eta ekimenean parte-hartzeko oinarrietan ezer gutxi aldatu da, ekimenaren sorrera bultzatu zuten baloreak bere horretan mantendu direlarik.

Zentzu horretan, aurtengo edizioko berrikuntza nagusietako bat Asun Casasola Berdintasuna Amets ekimenera aurkeztu eta aukeratuak izango diren lanak Parean elkartearen webgunean partekatuko direla da, modu honetan, ikasleen lanek zabalpen handiago izan dezaten. Hortaz gain, Parean elkarteak ekimena sustatzeko bideo bat sortu du, euskal kulturaren eremuan lan egiten duten pertsona ezagunen adierazpenak eta ekimenean parte-hartzera animatzen duten mezuak bilduz.

Irungo Berritzeguneko zuzendariak gogoratu duenez "Asun Casasola Berdintasuna Amets ekimena ez da lehiaketa bat, beraz, ez dago saririk". Marivi Fernandezek azaldu duenez, ekimenean parte hartzen duten ikastetxe guztiek parte-hartzea errekonozitzen duen diploma bat jasoko dute. Hortaz gain, hautatuko lanen egileek deialdiaren marrazkidun txapa bana jasoko dute. Era horretan, ekimenean Bidasoa zein Oarsoaldeko ikasketa zentro guztiek parte hartu dezkete, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa edo Batxilergoko zentroetaraino. Hortaz gain, egitasmoak banaka, talde txikitan, gelaka edo ikastetxe osoan landutako proiektuak onartzen ditu.

2021eko Asun Casasola Berdintasuna Amets egitasmoak martxoaren 26ra arte jasoko ditu ikastetxeek aurkeztutako lanak. Lanak aukeratzerako unean ekimenera aurkeztutako lanen originaltasuna, lanaren kalitatea eta gaiarekiko lotura izatea kontutan hartuko da. Era berean, hautaketa taldea Hezkidetza Mintegiko Berritzeguneko arduradunak, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hekzuntzako ikastetxeetako bi partaide eta Berritzeguneko idazkariak osatuko dute. Lanak berdintasunaamets@gmail.com helbide elektronikora bidaliz jasoko dira. Hortaz gain, Irungo Berritzegunera lanak postaz bidali edo zuzenean Irungo Berritzeguneak Kale Nagusiko 43. zenbakian duen egoitzan eskura uzteko aukera ere eskaintzen da.

Formatu anitz aukeran

Asun Casasola Berdintasuna Amets ekimenak lanak formatu anitzetan aurkezteko aukera ematen du. Besteak beste, eskulanak, idazlanak, ipuinak, mikro-ipuinak, olerkiak, haikuak, rap-a, leloak, logoak, marrazkiak, bideoak, aurkezpenak, ... aurkeztu daitezke. Hau da, lanak ikastetxean lantzen diren hizkuntza guztietan aurkezteko aukera ematen da. Dena den, lanaren atzealdean edo fitxategian ezinbestekoa da ikaslearen edo lana egin duten ikasle-taldearen izen-abizenak eta ikastetxearen izena agertzea. Marivi Fernandez Irungo Berritzeguneko zuzendariak azaldu duenez, hasiera batean martxoaren 8a hartu zen ekimena antolatzeko erreferente gisa. Izan ere, ikastetxeek egun horren inguruan sortutako lanak aurkeztu ohi zituztelako Berdintasuna Amets egitasmora. Beranduago, ordea, lanak entregatzeko epea luzatzea erabaki zen, ikastetxeek lanak entregatzeko eta lanak antolatzeko denbora gehiago izan dezaten.

Ekimenaren abiapuntua

Berdintasuna Amets ekimena eskualdeko ikasleen artean ikastetxeetako lanketaren bitartez berdintasuna eta genero indarkeriaren kontrako baloreak bultzatzeko helburuarekin martxan jarri zen. Aurtengo ekimenaren laugarren edizioa izan arren, aurten lehenengo aldiz Parean elkartearekin lankidetzan garatutako proiektua izango da. Ainara Lopez parean elkarteko ordezkari gisa ekimenaren aurkezpenean nabarmendu duenez, "Parean elkarteko kideentzat oso pozgarria da ekimen honetan parte hartzeko aukera izatea".

Irungo Berritzegunea eta Parean elkartearen arteko erlazioa aurretik dator Marivi Fernandez Irungo Berritzeguneko zuzendariak azaldu duenez, " aspaldidik beraiekin harremana dugu eta Berritzegunean antolatu ohi dugun hezkidetza mintegian parte hartu izan dutelako". Hezkidetza mintegi horietan erkidego mailako bigarren hezkidetza plana lantzen da. Izan ere, ikastetxe guztiek hezkidetza planean zehazten diren arauak landu behar dituzte. Horrela, Irungo Berritzegunetik antolatutako hezkidetza mintegietan eskualdeko ikastetxe guztietako hezkidetza arduradunek parte hartzen dute.

Ainara Lopez Parean elkarteko ordezkariak azaldu duenez, elkarteak Berritzeguneko ateak beti zabalik aurkitu ditu Parean elkartearen egitasmoak ezagutarazten lagundu edo elkartetik sortutako materialak zabaltzeko. "Irungo Berritzegunearen eta Parean elkartearen artean bideak elkartzea oso aberasgarria dela adierazi du Ainara Lopezek, herrigintza eta elkarte mugimendutik datorren ekimena hezkuntzarekin elkartzeko aukera ematen duelako", gaineratu du Ainara Lopezek.

Kristiñe Berridi, Dunboako osasun-zentroko lehen mailako arretako unitate burua:

"Hemendik aurrera ez dugu inoiz berriro aurreko moduan lan egingo"

Pandemiaren hasierak osasun sistemaren funtzionamendua hankaz gora ipini zuen 2020ko martxoan. Ordutik, osasun zerbitzu guztiak babestu eta osasun krisialdira egokitzeko erlojuaren kontra lan egin dute osasun arloko profesionalek. Kristiñe Berridi lehen mailako arretako unitateko buru gisa, lehen mailako arreta sistema betirako aldatu dela azaldu du.

Nola bizi zenuten pandemiaren hasiera?

Guztioi bezala asteburu baten erdian izan zen. Ostiralean gure lana beti bezala utzi genuen eta hurrengo astelehenean bizitza hankaz-gora jarri zitzaigun. Ordutik, gure lan egiteko moduan izugarri aldatu da, gaixoei harrera egin eta pazienteei behar duten atentzioa eskaintzeko. Jendeak segurtasun neurri berriekin nola funtzionatzen ari garen jakitea garrantzitsua iruditzen zait.

Goizetik gauera zuen lan egiteko modua aldatu zen?

Bai, gainera, aldaketa hau egiteko ez genuen inolako erreferenterik. Korrika zuzendaritzako kideekin bildu ginen. Zerotik neurriak hartu behar izan genituen, ateak itxi genituen eta protokoloak egun batetik bestera aldatzen ziren. Konplexua izan zen funtzionamendu berri horretara egokitzea. Udaran lasaiago ibili ginen, baina, pandemia hasieratik gure lan egiteko modua ez da aldatu eta ateak irekitzeko neurri asko hartu ditugu. Izan ere, gu geu zaintzen ez bagara, nahiko lan daukagu gure ordezkapenak lortzeko. Gaixotzen bagara okerrago izango da gure lankideentzat.

Osasun sistemaren gainkarga pandemiaren aurretik dator?

Pandemiak gauza txar asko ekarri ditu, baina, gure aurreko bizimoduan ezinbestekoak ziren aldaketak agerian utzi ditu. Hemendik aurrera ez dugu inoiz berriro aurreko moduan lan egingo. Dena dela, aurreko sistemara itzuli ez arren, horrek ez du esan nahi okerrago lan egingo dugunik edo jendea ikusiko ez dugunik. Gakoa benetan atentzioa behar duten pazienteei lehentasuna ematea izango da. Hau da, badira kontsulta telefoniko baten bitartez artatu eta aholku txiki batzuekin etxean gera daitezkeen gaixoak. Beste batzuk, ordea, mediku edo erizainaren kontsultatik igaro behar dira ezinbestean.

Orain lehen arreta kontsulta telefoniko bidez egiten da. Profesionalentzat erraza da?

Ez, jendeak guretzako erosoagoa dela uste du, baina, oker daude. Telefonoz hitz egitea eta pazientea aurrez aurre ez ikustea zailagoa da, batez ere, aurretik ezagutzen ez duzun paziente bat denean. Historialean bere informazio guztia duzun arren, bere izaera edo gauzak azaltzeko moduaren inguruan ezer gutxi dakizu. Horixe da gure egoera, behar baino profesional gutxiago gaudelako lanean, jende gaixotu edo plazak falta direlako eta, ulertzekoa denez, ez gaude gustura.

> "Aspalditik osasun sistema orokorrak berrikusketa behar zuen, aldaketa ezinbestekoa zen"

> "Medikuak falta zaizkigu, hemen zein estau osoan plaza guztiak bete ahal izateko"

Biztanleriak aldaketaren beharra ulertu du?

Ez du uste, jendeak pazienteak ikusi nahi ez ditugula uste du. Guk ikusi beharrekoak iksuten ditugu, baina, gaixotasunak markatutako lehentasunaren arabera noski. Pandemia aurretik zitak telefono eta internetez hartzea oso erraza zenez, edonork eska zezakeen medikuarekin kontsulta, horretarako benetako beharrik ez bazuen ere eta gauza garrantzitsuagoei lekua kentzen zitzaion. Oraindik sistema berri honi neurri hartzen ari gara eta pixkanaka ikasten goaz. Gaitz arinak telefonoz tratatzen dira. Hortaz gain, biztanleriak bakoitzak bere burua zaintzeko oinarrizko gauza batzuk jakin behar dituela uste dugu.

Lan karga handitu den bezala, baliabide material eta pertsonalak handitu dira?

Zalantzarik gabe lan-karga handitu da. Ohiko moduan pazienteak aurrez aurre ikusteaz gainera, kontsulta telefonikoak egiteko profesionalak behar ditugula eta positiboak diren edo arrisku berezia duten pazienteak ordutegi eta protokolo berezi batekin jasotzen ditugulako. Baliabideei dagokienez, medikuak falta zaizkigu, hemen zein estau osoan plaza guztiak bete ahal izateko. Ondorioz, ordezkapenak egiteko larri gabiltza eta norbait gaixotuz gero, langile bat gutxiagorekin aurrera jarraitu behar dugu. Erizain gehiago egon arren, libre daudenen zerrenda amaitzen ari da.

Ia urtebeteren ostean, langileen artean nekea nabari da?

Bai, nekea nabari da. Udara lasaiago izan zen arren eta oporrak hartzeko moldatu ginen arren, udararen aurretik izan genuen jai egun bat bera ere hartu. Udazkenaren ostean, pandemiaren hasierako funtzionamendura itzuli gara eta nekatuta gaude, kontrolik gabeko egoera honen amaiera ikusten ez dugulako. Fisikoki eta psikologikoki nekea baria da eta ospitaleetan lehen ilaran daudenek konkretuki oraindik lan karga handiago daukate. Gure kasuan antolaketa desegokia eta etengabeko aldaketak dira gure azaro nagusiak.

Txertaketa kanpainak polemika handia eragin du. Dunboako profesionalak txertatzen hasi dira jada?

Bai, gure zentroan txertaketa kanpaina hasi da, nahiz eta oraindik langile guztiok lehen dosia jaso ez dugun. Bidasoako ESIan urgentzia, COVID-19 plantetan eta Dunboako osasun-zentroan langileak txertatzen hasi dira. Txertoen banaketa irregularrak kexak eragin ditu, baina, hemendik gutxira guztiontzako txertoa iristea espero dugu.

Hiritarrek kalitatezko osasun sistema publikoa defendatzeko deitutako mobilizazioengatik babestuta sentitu zarete?

Bai, Dunboako osasun-zentroan kanpoaldean zenbait mobilizazio antolatu dituzte. Babes adieraztea ondo dago eta eskertzen dugu. Martxoan pandemiaren hasierarekin jendeak balkoietan txalo egiten zuen eskerrak emateko. Orain jendea beste muturrera pasa dela ikusi dugu, hau da, jendea gurekin oldarkortasunez jokatzen ari da, irainak jasotzen ditugu eta urrutiago iritsi nahi duten erasoak. Hortaz, txaloetatik erasoetara igaro beharrean, tarteko zerbait nahiago dut, bakoitzak bere lana egiten jarraitu dezan eta ingurukoei enpatia gehiagorekin begiratzeko.

Nola begiratzen du egungo lehen mailako arreta sistemak etorkizunera?

Etorkizuna zail eta ilun ikusten dugu. Aspaldidik osasun sistema orokorrak berrikusketa bat behar zuen, aldaketa ezinbestekoa zen. Gasteizetik planteamendu berriak sortzen ari ziren, pandemia, ordea, aurreratu egin da. Mediku eta pediatren falta da konponbide zailena duen arazoa, konponbide hori Euskadiko mugetatik kanpo dagoelako, Madrilen. Dunboako osasun-zentroan medikuak falta diren bezala ospitaleetan espezialistak falta dira eta mediku berriak lortzeko 10-11 urte behar dira. Izan ere, giza baliabiderik gabe ezinezkoa da gainontzeko arazoentzako konponbidea aurkitzea.

ZiztaKA Irunen euskara eta kulturarentzat arnasgune izango den espazioa sortzeko asmotik sortu da

Urte bat igaro da jada Irunen ZiztaKA taldea sortu zenetik. Hirian euskara eta kulturarentzat arnasgune izango den espazio bat sortzeko nahiak bultzaturik herri ekimenetik jaiotako proiektua da. Orain arteko ibilbidea laburra izan bada ere, ekimenak hirian jasotako babesak etorkizun oparoa aurreikusten du. Maddi Sanz eta Beñat Alzagak ZiztaKAren nondik-norakoak azaldu dituzte.

Zergatik erabaki zenuten Ziztaka proiektua martxan jartzea?

Maddi: Proiektua orain dela urte eta erdi sortu zen, euskara eta kulturaren inguruan ausnartzeko bildu ginenean. Hasieratik ideia nahiko argi genuen, baina, pixkanaka Irungo egoera zein zen aztertzen hasi ginen. Horrela, Irunen euskara eta kultura erdigunean jarriko dituen espazio bat beharrezkoa zela ikusi genuen.

Euskara eta kultura dira proiektuaren ardatzak?

Beñat: Bai. Esaterako, gu euskararen egoeraren inguruan kezkatuta geundelako batu ginen proiektura. Euskaraz gainera, kultur ekimenek Irunen nolabaiteko gabezia zutela ikusi genuen. Gabezia horren jatorrian euskara zein kulturaren beharrak asetzeko espazio nahikorik ez zegoela ikusi genuen. Horregatik, espazio baten beharra ikusten dugu eta espazio horrek euskara eta kultura ardatz izan behar dituela uste dugu.

Proiektua aurkezten hasi ostean, Irungo zenbait elkarte eta entitatean babesa jaso duzue?

Maddi: Urte luzez lagun talde bat proiektua marrazten eta pentsatzen egon gara. Behin gauzak argi izan genituenean eta proiektua aurkeztea erabaki genuenean, Irungo eragile eta norbanako desberdinekin harremanetan jarri ginen. Bilera horietan gure ideia azaldu genien, hasiera batean 10 pertsonen ideia zena, azken finean, jende askoren artean partekatutako asmoa dela ikusteko.

Zuen aurretik hirian badira kultura eta euskara bultzatzeko asmoarekin hirian martxan zeuden elkarteak. Zertan desberdintzen da zuen ekarpena?

Beñat: Ez dut uste gure artean ezberdintasun askorik dagoenik. Izan ere, gu geu euskarako eragileengana hurbildu gara genuen diagnosia konpartitzeko eta, diagnosiaz gainera, guk proposatutako soluziobidearekin eta espazio horren beharrarekin bat egiten ote zuten ikusteko. Egia esan, gure ideiak oso harrera ona izan du, baina, gure helburua egitasmo hau sustatzea eta aurrera eramatea da. Hau da, gure inguruan entitate guztientzako lekua dago eta denon artean eraiki beharreko proiektu bat dela uste dugu. ZiztaKAk sortu eta sustatu du, baina, irundar guztien artean irundar guztientzako egin beharreko zerbait dela uste dugu.

Nolako emaitza izan dute orain arte antolatutako hiritar-foroek?

Maddi: Egia esan antolatutako foroek harrera zoragarria izan dute. Bi foro egin ditugu, lehena urtarrilaren 9an eta bigarrena otsailaren 6an, tartean hilabeteko tartea uzteko. Lehenengo foroan 45 lagun inguru elkartu ginen eta momentuan indarrean zeuden segurtasun neurriak errespetatuz gela betetzea lortu genuen. Bertan profil desberdinetako jendea elkartu zen eta hori oso aberasgarria izan zen guretzat. Hilabete beranduago, berriro gela betetzea lortu genuen eta aurpegi berriak ikusi genituen. Jendea foroetara ilusioz eta gogoz etorri zela ikusi genuen eta guretzako opari hoberik ez dago.

Herri ekimenetik bultzatutako proiektua izango da, ezta?

Beñat: Bai, horixe da, herritik sortua eta herritik sustatu nahi den proiektua da. Orain, proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren hurrengo urratsak ikusi behar ditugu.

Zein baloretan oinarritzen da proiektua?

Ideia hau aurrera ateratzeko hainbat balore eta ideia jarri ditugu mahai gainean. Alde batetik, kultura sustatuko duen espazio bat izatea nahi dugu eta, era berean, euskararentzako arnasgune izango dena. Hortaz gain, parekidetasun eta berdintasunean oinarritutako espazio bat sortuko dugu. Beraz, irundar guztiak ongietorriak izango diren espazioa sortu nahi dugu.

Ideia aurrera eraman ahal izateko udalaren lankidetza beharrezko ikusten duzue?

Beñat: Orain arte herri-eragileekin harremanetan jarri gara eta haiekin hitz egin dugu. Lehen aipatu bezala, ideia honek hiriak duen gabezi bati erantzuten dio, hortaz, soluziobidea izan nahi da. Horregatik, gure ustez gaiari dagokionez Irungo Udalak badu zeresana eta, behar bada, zeregina. Berandu baino lehen beraiekin harremanetan jarriko gara, gure diagnosiarekin bat egiten duten ikusi eta ahal dela haiekin batera proiektua aurrera eraman nahi genukeelako.

Jendeak proiektuan parte-hartzeko duen prestutasuna neurtzeko galdetegia martxan duzue. Nolakoak izan dira orain arte bildutako emaitzak?

Maddi: Lehen-foroan jada jende asko beren denbora eskaini eta proiektuan laguntzeko gogotsu zebilela ikusi genuen. Hori ikusita, otsailaren 6ko foroan galdera zabaltzea erabaki genuen: Zertarako zaudete prest?. Galdetegi horretan hainbat lantalde proposatzen dira: komunikazioa kudeatzeko, harreman-bira eta entitateekin kontaktatzen jarraitzeko, proiektua definitzen jarraitzeko, ... Kasu honetan erantzuna ere oso ona izan zen, gurekin lan egiteko prest dagoen jendea dagoela ikusi dugulako eta guretzat hori oso garrantzitsua da. Azken finean, gu Ziztaka gara, baina, Ziztaka oso handia da eta denon artean lan egitea dugu helburu.

Zeintzuk izango dira etorkizunera begira eman beharreko hurrengo urratsak?

Beñat: Hurrengo urratsak lantaldeekin loturik daude. Harreman-biraren bitartez proiektua ezagutarazten jarraitu behar dugu. Behin beharrezko zabalpena emanda, babesa lortzea izango da hurrengo pausua. Horretarako, elkarte eta norbanakoek egitasmoarekiko babesa adieraz dezaten dokumentu bat sortuko dugu. Esan bezala, udalarekin hitz egiteko gogotsu gaude eta asmoa badugu, gure diagnosia eta egitasmoa konpartitzeko. Batez ere, etorkizunari ilusioz begiratzen diogu, proiektu honek Irunen errotzeko aukera handiak dituela uste dugulako.

Rubén Fraile, Behobiako merkatarien elkarteko ordezkaria:

"Agintari politikoek gure negozioen aurka egindako adierazpen zentzugabeek asko kaltetu gaituzte"

Pandemia hasieratik urtebete betetzeko hilabete falta denean, merkatari eta ostalariek osasun krisialdiaren ondorioei aurre egiten jarraitzen dute. Zehazki, Behobiako merkatari elkartearen ordezkaria den Rubén Frailek mugaren inguruan Frantziako gobernuak hartutako murriztapen neurri berriek auzoko saltokietan izandako eragin kaltegarria salatu du La Cave dendaren atarian.

Zein da momentu honetan Behobiako merkataritzak bizi duen egoera?

Momentuko egoera nahiko txarra dela esango nuke. Azkenaldian erosleen kopurua era nabarian murriztu da eta ohiko bezeroek joan-etorri eta erosketa gutxiago egiten dituztela ikusi dugu. Beraz, gure kasuan denda zabalik dugu, baina, egia esan ez dakigu zertarako, denbora pasatzeko.

Frantziako gobernuak muga gurutzatzeko kontrolak indartu dituela nabaritu duzue?

Bai, batez ere, urtarrilaren 30tik aurrera, muga zeharkatzen duten pertsonen kopurua modu nabarmenean jaitsi dela ikusi dugu. Frantzia eta Espainiako estatuen arteko muga guztiz itxi ez bada ere, murriztapenen ondorioak nabaritzen hasi gara. Zehazki, alde batetik bestera zeharkatu nahi dutenei, mugaren inguruan 30 kilometrotara bizi ez badira, PCR probak eskatzen dizkiete. Hortaz, hemen inguruan bizi diren biztanle horiek arazorik gabe muga zeharkatu dezakete erosketak egitera etortzeko.

Zuen bezeroei erreparatuta, nondik etorri ohi zaizkizue erosleak?

Gure kasuan bezeroen %99a mugaren beste aldetik dator, hortaz, egoera honen ondorioz egun gure bezero kopurua ia zerora jaitsi dela esan dezakegu.

Zuengana mugaren beste aldetik iristen diren bezero horien jarreran aldaketarik nabaritu duzue?

Guztioi azkenaldian gertatzen zaigun moduan, zalantzaz beterik datoz. Hau da, ez dakite muga zeharkatzeagatik legez kontrakoa den zerbait egiten ari diren. Hortaz, guregana iristen diren bezero gutxi horiek beldurrez datozela ikusi ahal izan dugu.

Bezero horien erosketek ohiz kanpoko egoeraren agerian uzten dute?

Bai, 2020ko ekainaren 21etik aurrera aldaketa handia nabaritu genuen, izan ere, egun horretara arte muga hesiz itxita egon baitzen. Muga ireki bezain laster bezeroek ohi baino erosketa kopuru handiagoak egiten zituztela ikus genuen, baina, ostean ohiko egoerara itzuli garela esango nuke. Hala ere, azkenaldian Frantziako bezeroen dei asko jasotzen ditugu, irekita ote gauden edo gure dendara etor daitezkeen galdetuz.

Salmentak guztiz ezegonkortu zirenetik urte bat beteko da laster. Egoera luzapena ikusita, ez da erraza izango negozioa aurrera ateratzea?

Bai, oso luze egiten ari zaigu ia urtebetez honelako egoera ekonomiko guztiz ezegonkorrari aurre egin behar izatea, etorkizunean zer gertatuko den jakin gabe. Egoera ekonomikoaren zailtasunez gainera, agintari politikoek gure negozioen aurka egindako adierazpen zentzugabeek asko kaltetu gaituzte. Izan ere, ez dugu ulertzen zein arrazoietan oinarritzen diren Behobian erosketak egitea aholkatu ordez, frantsesak Dantxarinea bezalako beste muga inguruetara joan daitezela sustatzeko. Batez ere, deigarria eta zentzugabea iruditzen zaigu Kotte Ecenarro, Hendaiako alkate gisa, beste agintari politikoek egindako deklarazioei zabalpena ematea, Hendaia eta Irungo hirien ekonomia laguntzen ez dutela argi dagoenean. Egia edo adierazpen zentzugabeei zabalpena emateak kalte asko egiten digu.

Zer beharko zenukete zuen negozioen egoera hobetzeko?

Normaltasunera itzultzea, gaur egun mundu guztiak egiten duen eskari bera. Horrela, jendea gure dendara lasaitasun osoz erostera etor daitekeelako.

"Estatuen arteko muga guztiz itxi ez bada ere, neurrien ondorioak nabaritzen hasi gara"

"Gure kasuan bezeroen %99a mugaren beste aldetik dator"

Zentzu horretan, Behobiako merkatarien egoera ezin da hiriko gainontzeko saltokien egoerarekin alderatu?

Lehengo egunena irakurtzen nuen Mendibil merkataritza-gunean salmentak eta bisitariak %40 murriztu direla, hau da, merkataritza-gunean jasotzen duten bisitarien kopurua ia desagertu egin dela, bertako biztanleen ehunekoa %60koa delarik. Hiriaren erdigunean bisitarien kopurua era hain nabarian murriztu bada, Behobiako merkatarien kasuan bisitak %90 jaitsiko ziren gutxienez.

Zuen dendaren kasuan, egoera berri honetara egokitzeko neurri berezirik hartu behar izan duzue?

La Cave dendan gure ordutegia murriztu dugu, beraz 8:00etan irekitzen jarraitzen dugu, baina, 20:00etan itxi beharrean, orain 18:00etan jaisten dugu dendako pertsiana. Hortaz gain, "take away" zerbitzua eskaintzeko apustua egin dugu, horrela, Frantzia, Irun, Hondarribi edo Donostiako bezeroei erosketa etxera eramateko aukera ematen digulako.

Zeintzuk dira etxera eramateko zerbitzua erabili ahal izateko baldintzak?

Bezeroek 30 eurotik gorako erosketak egin behar dituzte eta trukean guk erosketa etxeraino eramaten diegu. Orokorrean, Irun, Hondarribi eta Hendaiako bezeroekin lan egiten dugu, baina, kasu zehatzetan erosketak Donostiaraino eraman izan ditugu.

Etorkizunari begira aurreikuspenak egitea zaila izango zaizue?

Bai oso zaila da. Esaterako, gure biltegiak ia hutsik dauzkagu, ez garelako generoz betetzera arriskatu nahi. Izan ere, biltegia generoz betetzeko aurretik erosi nahi dena ordaindu behar dugu eta orain ez dugu gastu guzti horri aurre egin ahal izateko likidezia nahikorik.

Salmentei dagokienez, zeintzuk dira urteko hilabeterik garrantzitsuenak zuentzat?

Martxo inguruan salmentak handitzen dira eta urrira arte luzatzen da salmenta handieneko garaia. Baina, batez ere, abuztua izan ohi da urtean zehar gehien saltzen dugun hilabetea.

Urte hasierako gorabeherak ikusita, zein aurreikuspen dituzue hurrengo hilabeteetara begira?

Gure desio pixkanaka egoera hobetzen dela ikustea da. Hemendik gutxira txertoaren eraginkortasuna ikustea espero dugu. Izan ere, egoera aldatu ezean, udaberrian gutako askok gure negozioak itxi beharko ditugu.

Kirol Irundarraren Sariek 2020ko kirolari irundarren lorpenak saritu dituzte

2020a urte konplikatu bezain ezohikoa izan da kirol modalitate ezberdinak praktikatzen dituzten irundarrentzat. Entrenamenduen etendura eta txapelketa asko bertan behera gelditu badira ere, badira 2020. urtean zehar kirol lorpen aipagarriak lortu dituzten kirolari irundarrak. Kirol Irundarraren Sariak banatzeko ekitaldia antolatzea ezinezkoa izan denez, irabazleen izenak jakinarazi dira jada.

Emakumezkoen kirolari onenaren saria Teresa Errandoneak eskuratu du. 2020. urtean zehar Espainiako Pista Estaliko txapelketan urrezko domina irabazi, Euskadiko errekorra lortu eta 60 metro hesidunetan inoizko hirugarren markarik onena lortu zituen irundarrarak. Saria jasotzerakoan Teresak adierazi duenez, "bizitzen ari garen egoerarengatik urte konplexua izan da eta nire lana horrela saritzea oso pozgarria da, asko eskertzen dut". Atleta irundarrak sari bera jasotzen duen laugarren aldia izan da, izan ere, 2012., 2017. eta 2019. urteetan ere Kirol Irundarraren Sarietan aipamenak lortu zituen.

Gizonezkoen kirolari onenaren saria, berriz, Julen Aginagalde eskubaloi jokalariarentzat izan da, 2020an etxeko taldera itzuli ostean. Bidasoa Irun Kirol Klubeko piboteak adierazi duenez "saria jasotzea oso pozgarria da niretzat eta etxetik datozen errekonozimenduak dira gehien eskertzen ditudanak".

Banakako kirolarien lorpenak saritzeaz gainera, 2020ko Kirol Irundarraren Sarietan klub onenarentzako errekonozimendua egon da eta Leka Enea Mahai-Tenis klubarentzat izan da. Izan ere, klubeko kirolariek Champions League maskulinoan parte hartu zuten eta Endika Diez Espainiako Txapeldun titulua lortu zuen. Josema Zuazua klubeko presidentearen hitzetan "urte gogor honetan eta egoera dagoen bezala, hiriko klub onenaren saria jasotzea oso pozgarria da".

Borja Olazabal Kirol ordezkariak 2020a bezalako urte konplexu batean Irungo klub eta kirolariek egindako lanaren garrantzia azpimarratu du. "Denboraldi konplexua izan da, bertan behera gelditu diren txapelketa eta pandemiaren bilakaerara egokitu behar izan diren entrenamenduekin", azaldu du Kirol ordezkariak. Hortaz, Kirol Irundarraren Sariak aurrera eraman eta irundar kirola saritzeko inoiz baino arrazoi gehiago izan dituztela azaltzeko.

Pandemiaren hasierarekin txapelketa guztiak eten baziren ere, urteko bigarren zatirako txapelketa batzuk berreskuratzea lortu zenez, 2020. urteak lorpen batzuk utzi zituen hirian, Kirol Irundarraren Sariak banatzeko kontutan hartu direnak. Sari banaketako bideoak eta kirolarien mezuak Irungo Udalaren Twitter eta Instagram sare sozialetan ikusgai daude jada.

Irundarron ahotsa

Era berean, 2020ko Kirol Irundarraren Sarietan hiritarrek haien kirolari gogokoena bozkatzeko aukera izan dute eta, kasu honetan, saria Teresa Errandonearentzat izan da. Irundarron Sariaren irabazlea aukeratzeko udal webgunearen bitartez bozketa bat aktibatu zen eta kirol diziplina ezberdinetan dabiltzan kirolarien artean aukeratzeko aukera eman zen. 399 irundarrek parte hartu dute Irundarron Saria aukeratzeko bozketan, bigarren postua Txingudi Errugbi Klubeko Iñigo Camarerorentzat eta hirugarren postua 94/95 denboraldiko Bidasoa kirol klubeko jokalarientzat izan direlarik. Bozketan, aurretik aipatutako hautagaiez gainera, Klara Olazabal, Julen Aginagalde, Leka Enea Mahai Tenis kluba, Bidasoa XXIeko emakumezkoen waterpoloa eta Halterofilia Argitrans kirolari eta kirol klubek Irundarron Saria jasotzeko izendapena jaso zuten.

Errekonozimendu berezia

Ohiko sariez gainera, sari banaketak sari berezi edo ohorezkoa izan zuen, orain arte egin izan den moduan, urteurren borobilak ospatzeko erabili izan dena. Adibidez, aurreko edizioetan Kurpil Kirolak elkartearen 75. urteurrena, Irungo txirrindulari elkartearen eta Txingudi errugbi klubaren 50. urteurrenak ospatzeko balio izan du.

2020. urtean ohorezko errekonozimendua 94/95 denboraldian zehar Bidasoa kirol kluba osatu zuten kirolarientzat izan da, orain dela 25 urte Europako txapeldun titulua lortzeagatik, euskal kirolariek lorturiko Europako sari bakarra. Saria Fernando Morondo eta José Luis Muñoz orduko klubeko zuzendaritzako kideek eta Beñardo García orduko klubeko presidenteak jaso dute. Denboraldi hartan Bidasoako presidente izan zenak saria jasotzetako orduan ordutik kluba osatu duten jokalari, entrenatzaile, mediku, bazkide, zuzendari eta babesle guztiek lorpen horiek lortzea ahalbidetu zutela gogoratu du eta oraindik ere klubak aurrera jarraitzen duela. "Etorkizunean guztiak aurrera jarraitzea eta Artalekuko garra pizturik jarraitzea espero dut, etorkizuneko lorpenetan bihurtzea espero dut", adierazi du Beñardo Garciak.

Bidasoa Irunek Asobal ligako sailkapeneko bigarren postuari eusten dio

Argazkiaren egilea: Pepa Conesa

Bidasoa Irunek Asobal ligako sailkapenaren bigarren postuari eusten dio. Otsailaren 13an jokatutako partiduan talde Irundarrak bi puntu garrantzitsu irabazi zituen Fertiberia Puerto Sagunto taldearen aurka. Asobal ligako 20. jardunaldian Bidasoak talde aurkaria mendean hartu zuen Valentziako kiroldegian jokatutako partiduan.

Fertiberia Puerto Saguntoren partiduaren hasieran nagusitasuna erakutsi zuten jokalari irundarrek. Puerto Saguntoren zelaian jokatutako partiduaren lehen zatian Bidasoak bere aldeko hainbat errenta lortu zituen. Hala ere, Fertiberia Puerto Saguntok atsedenaldiaren aurreko 30 minutuko tartea markagailua bere alde uztea lortu zuen, 17-16 punturekin. Izan ere, atsedenaldiaren aurreko bost minutuetan talde hori-urdinak ez zuen ate aurkariraino iristeko aukerarik topatu.

Atsedenalditik indartsu itzuli zen talde irundarra, bigarren zatiko lehen 5 minutuetan Bidasoak 0-4ko par- tziala lortu zituen Jon Azkue, Dan Racotea eta Tom Tesorierek sartutako golei esker. Horrela, minutuek aurrera egin ahala, talde irundarrak partidua bideratzea lortu du, errentetan abantaila handiagoak lortuz. Bigarren zatian Bidasoak lortutako errentarik handiena 8 puntutakoa izan da, partidua amaitzeko bost minutu falta zirenean Jon Azkuek sartutako golari esker markagailua 27-35 puntuko aldearekin utzi arte. Partiduaren amaieran, berriz, 30-36 puntuekin garaipena eta irabaz- learen bi puntuak eskuratu zituzten Jacobo Cuetararen mutilek.

Sailkapeneko bigarren postuan tinko

Asobal ligako 20. jardunaldia jokatu ostean, Barça 38 punturekin ligako sailkapenean nagusi nagusi da. Bidasoak, aldiz, azken partiduetan eskuratutako emaitzekin Asobal ligako bigarren postuari eusten dio 31 punturekin. Asobal ligako 21. jardunaldian irundarren aurka indarrak neurtuko dituen Helvetia Anaitasuna taldea 10. postuan aurkitzen da 21 punturekin.

Bidasoak Asobal ligan orain arte 20 partidu jokatu ditu aurtengo denboraldian. Zehazki, 15 partiduetan talde irundarrak garaipena lortu du, berdinketa bakarra eta 4 porrot izan dituen bitartean. Horrela, 600 izan dira Bidasoak sartutako golak eta 517, berriz, kontra jasotakoak.

Gehiegi arriskatu gabe

Fertiberia Puerto Saguntoren aurkako norgehiagokari aurre egiteko Jacobo Cuétara entrenatzaileak defentsan indartsu eta erasoan arriskurik hartuko ez zuen taldearen aldeko apustua egin zuen. Bidasoako entrenatzaileak honela deskribatu zituen otsailaren 13ko partiduak izan beharreko gakoak: "taldearen maila erakutsi, defentsan eroso egon, dinamismoa eta erasoan gehiegi ez arriskatzea".

Aurreko igandean Frigorificos Morrazoren aurka jokatuko partiduan gertatutakoan oinarritu zen Jacobo taldearen hurrengo partidua prestatzeko. "Frigorificos Morrazo taldearen aurka jokatutako partiduan baloi asko galdu genituen, kontraerasoan errazak izan zirenak". Era honetan, Fertiberia Puerto Saguntoren aurkako partiduan aurkariei gol errazak oparitzea ekidin nahi izan zuen Cuétarak. "Kalitate ofentsibo asko duen taldea da, lehen lerroan, pibotetan...eta potentzial hori gelditzen saiatuko gara", adierazi zuen Jacobo Cuétarak partiduaren aurretik. Behin partidua jokatuta, jokalari irundarrek entrenatzailearen desioa errealitate bihurtu zuten partiduan lortutako emaitzarekin.

Frigorificos Morrazo taldearen aurkako partiduan Bidasoak lortutako berdinketaren ostean, Fertiberia Puerto Sagunto taldearekin topo egin aurretik irundarrek egindako entrenamendu lanarekin pozik agertu zen entrenatzailea. "Taldea ondo ikusi dut, erantzuna ona izan da, entrenamenduetan lehiatuz, intentsitate handiarekin eta lan bolumen handiarekin, ... ondo ikusi dut", gaineratu zuen Jacobo Cuétarak.

Era berean, aurreko berdinketak taldea mindu eta atsekabea eragin zituen arren, lortutako puntuei balioa ematen, sailkapeneko postua baloratu eta datorren partiduari aurre egiteko lan egiten dakitela baieztatu zuen Bidasoako entrenatzaileak. "Lan oneko aste baten ostean, ondo lehiatzeko aukerak bermatzen dizkigu", azaldu du Cuétarak taldeak ondo entrenatu zuela baieztatuz. "Partidu bakarreko asteak luzeagoak egiten dira", Bidasoako entrenatzaileak azaldu duenez. Izan ere, azken hilabeteetan zehar Bidasoa taldea egun gutxiren buruan partidu berri bati aurre egitera ohitu da. Orain ordea, partiduen artean denbora tarte gehiago edukitzeak, hurrengo talka kalitatez prestatzeko aukera ematen die Bidasoako jokalariei.

Derbia datorren astebururako

Bidasoa Irun taldeak bere hurrengo partiduan Helvetia Anaitasunaren aurka indarrak neurtuko ditu. Aurreko jardunaldian Anaitasuna 26-25 punturekin Valladolideko taldeari nagusitu zitzaion. Derbia otsailaren 21ean Artalekun jokatuko da eta arratsaldeko 16:00etatik aurrera ETBn jarraitu ahalko da.

"Partidu bakarreko asteak luzeagoak direla dirudi"

Jacobo Cuétara, Bidasoako entrenatzailea

Zailtasunen gainetik 1.910 kontsulta kudeatu ditu Bidasoako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen elkarteak 2020an zehar

Bidasoako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen elkarteak eskualdeko hiritarren kontsulta eta erreklamazioak kudeatzen jarraitu du 2020. urtean zehar. Belén Martínez zerbitzuko idazkiak aurreko urtean zehar pandemiaren harira zerbitzuaren funtzionamendu eta zerbitzuetan izandako gorabeherak azaldu ditu.

Zer da ACUBI eta zeintzuk dira eskaintzen dituzuen zerbitzuak?
ACUBI Bidasoako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen elkartea da. Elkartea 1984. urtean sortu zen, eta 1988. urtetik bulego ireki gisa lan egiten dugu. Hasiera batean bulegoa Foru kalean kokatuta zegoen eta orain dela 4 urte bulegoa tokiz aldatu eta orain Palmera Montero gunean dugu gure egoitza berria. Gure helburua Bidasoako biztanleei kontsumoarekin loturiko aholkularitza eskaintzea da. Hortaz gain, Hendaian bizi diren espainiar edo Bortzirietako biztanleei ere zerbitzua ematen diegu.

2020. urtea gorabeherez beteriko urtea izan da zuentzat ere, ezta?
Gogoratuko duzuenez, urtea Txingudiko Zerbitzuak etxera berriro faktura paperean bidal zezala eskatuz hasi genuen. Konfinamenduak tarte horretan harrapatu gintuen eta ni egunero bulegora etortzen nintzen posta elektronikora iritsitako mezuak eta deiak erantzuten jarraitzeko. Ondoren, pixkanaka bulegoa ireki eta berriro kontsultak kudeatzen hasi gara. Urte ezohikoa izan arren, 2020. urtean zehar 1.910 kontsulta eta 393 erreklamazio jaso ditugu.

Azken urtean zehar jendearen kontsultak edo zalantzak asko aldatu dira?
Aurreko urteko arazo nagusia Dentix kliniken itxiera izan da eta hiru hilabetez pertsona guzti hauen arazoak konpontzen egon gara. Lehen urratsa arazoa ikertzea izan da, dokumentazio guztia bildu dugu, Dentix zein finantza erakundeetara bidali beharreko idatziak prestatu dizkiegu. Une honetan banketxeek maileguaren kuoten luzamena, horiek bertan behera uztea edo Dentix klinikekin zer gertatuko den ikusi arte itxarotea proposatzen ari diete. Dentix kliniken itxierak eskualdean 100 pertsona inguru kaltetu dituela kalkulatzen dugu. Arazo honek denbora asko kendu digu bestelako eskakizunak erantzun ahal izateko.

	COVID-19AREN AURRETIK	KONFINAMENDUAN	KONFINAMENDU OSTEAN	GUZTIRA
PROPIETATE HORIZONTALAK (KOMUNITATEAK)	116	9	185	310
ALOKAIRUAK	129	29	348	506
TELEFONIA	23	3	86	112
ASEGURUAK	55	2	56	113
ARGIA	8	1	14	23
UR ETA HONDAKINEN FAKTURA	24	1	0	25
GAS NATURALA / BUTANOA	7	1	17	25
BANKUAK (ZORU-KLAUSULAK ETA NOTARIALAK)	30	5	72	107
GREMIOEN KONTRATAZIOA	16	0	0	16
ETXEBIZITZEN SALEROESKETA	5	0	41	46
BIDAIA-AGENTZIEN ZERBITZUA	0	9	80	89
BIDAIARIEN AIREKOGARRAIOA	0	3	27	30
IBILGAILUEN SALMENTA	0	0	16	16
ODONTOLOGIA ZERBITZUAK (DENTIX)	0	0	314	314
GUZTIRA	413	63	1.256	1.732

Aurreko urtean kontsulta asko eragin duen beste gairik nabarmenduko zenuke?
Pandemia aurreko urteetan gertatu bezala, bizilagunen komunitatearekin loturiko kontsulta asko jaso ditugu. Hortaz gain, alokairuekin kasuan, errentariak alokairu bat sinatzerako orduan duten informazio falta ikusi dugu, guregana iristen direnerako jada arazo larriak dauzkate.

Zuzenki COVID-19ak eragindako egoerarekin lorturiko kontsultarik izan da?
Urteko jardueraren laburpena egiterakoan, urtea hiru zati ezberdinetan banatu dugu: pandemia iritsi aurreko kontsultak, konfinamendukoak eta ondorengoak. Konfinamenduan zehar 75 kontsulta jaso genituen eta horietako asko alokairuaren gaiarekin loturik zeuden, adibidez, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean zeuden pertsonek alokairuak ordaintzeko arazoak zeuzkatelako. Hemendik aurrera, bidaia-agentziekin loturiko kontsultek era nabarmenean gora egin zuten, bidaiak bertan behera utzi eta dirua itzultzea nahi zutela eskatuz.

Beste urteekin alderatuta, beste gairen batekin loturiko kontsultak murriztu direla ikusi duzue?
Dentix gaiarekin loturiko 314 pertsonei zerbitzua eskaini zaie. Horren atzean kontsultak jaso eta beharrezko informazioa eskaintzeko lan handia dago. Bestetik, bidai agentzien gaia dago. Hortaz gain, etxeen saleroskeka ere gai mamitsua izan da, izan ere, jende askok eraikitze prozesuan zegoen etxe bat erosia zuen. Konfinamenduan zehar eraikuntza lanak eten egin ziren langile asko haien jatorrizko herrialdeetara itzuli zirelako. Egoera horrek etxebizitzak entregatzeko data atzeratzea ekargin zuen. Banketxeekin loturik, berriz, zoru-klausulen itzulera eta notario-gastuen itzulketa eskatzen jarraitzen duen jende askorekin aurkitu ginen. Telefonia zein fakturekin loturiko kontsultak bere horretan mantendu direla esango genuke. Konfinamenduaren ondorioz, Internetekin loturiko arazoek protagonismo berezia hartu dute, telelana errazteko jendeak zerbitzu on bat behar baitzuen. Laburbilduz, alokailuak eta bizilagunen komunitateak izan dira beste urte batez kontsulta gehien eragin dituzten gaiak.

Nola aurreikuspenak egiten dituzue 2021eko lehen hilabeteetara begira?
Urtea kontsulta eta erreklamazio dezenterekin hasi dugu. Dentixen itxierarekin loturiko erreklamazioei konponbidea emateko lanean jarraituko dugu, momentu honetan banketxeak kaltetuekin harremanetan jartzen hasi direla ikusita. Gipuzkoan Vitaldent taldeak Eibar eta Donostiako kontsultak berriro irekiko dituela dakigu, baina, Irungo klinikarekin zer gertatuko den ikusteko dago. Izan ere, pertsonak askok, itxaro ezinean, beste kliniketan tratamenduarekin jarraitu behar izan dute eta orain tratamendu horien beharra justifikatu behar dute.

Galderaren bat duten pertsonak nola jarri daitezke zuekin harremanetan?
Atentzioaz gainera, orain justifikazioekin lan handia dugu. Beraz, kontsumitzaileei ahal den neurrian gurekin helbide elektronikoaren bitartez kontaktuan jartzea eskatzen diegu eta ahal bezain laster erantzungo diegu.

“Urte ezohikoa izan arren, 2020. urtean zehar 1.910 kontsulta eta 393 erreklamazio jaso ditugu”

“Dentix kliniken itxierak eskualdean 100 pertsona inguru kaltetu dituela kalkulatzen dugu”

DUNBOA LH2

Denbora-pasak

7 hitz: Inauteriak

T	W	N	M	P	W	U	K	B	S	X	J	M	I
U	N	G	A	E	V	Z	U	B	P	E	I	O	Q
V	L	Y	S	J	K	L	T	Q	F	T	L	Z	D
V	P	Q	K	K	B	S	W	M	J	R	E	O	H
A	J	U	A	X	O	Q	A	B	C	B	O	R	X
P	O	Q	R	W	I	N	Q	W	Z	U	R	R	V
W	F	Z	A	Q	Q	T	F	B	H	W	D	O	D
T	V	W	Z	R	E	R	D	E	H	W	E	K	U
V	X	S	Q	Z	I	G	Z	H	T	W	X	R	B
D	X	A	H	C	O	J	R	R	U	I	A	F	D
H	D	P	N	P	U	R	P	U	R	I	N	A	E
R	G	S	S	O	P	H	S	U	P	J	I	R	A
M	A	K	I	L	L	A	J	E	G	U	C	S	V
K	A	H	W	O	K	G	E	H	Z	G	N	I	O

Mozorro, maskara, txano, konfeti, ileorde, purpurina, makillaje

	1			4			3	2
8	5	7						
4							5	7
7	4	5		9				3
9					6	2		
			4		8	7		
3	6				2	9	7	
					4	5		
5	9	8						

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Ama ezkondu

Ama ezkondu, ama ezkondu,
gaztia naizen artian.
Nere alaba, zaudez ixillik
aragirik ez da itxian.

Ddun-ddun-ra-ra-ra
Ddun-ddun-ra-ra-ra
aragirik ez da itxian.

Josten, josten ari nitzala
labiaren gañian
txantxangorri bat etorri eta
jarri aldamenian.

Ddun-ddun-ra-ra-ra
Ddun-ddun-ra-ra-ra
jarri aldamenean.

Tira nion titaria eta
autsi nion bernia*
eun erralde pixatzen zittuen
aren ixterraldiak

Ddun-ddun-ra-ra-ra
Ddun-ddun-ra-ra-ra
aren ixterraldiak.

S.R.A. andereari jasoa (1959ko martxoa). (El Bidasoa, 1959-VI-6)

* "Bernia" forma bizkaierazkoa da: berna + a, bernaa, bernea, bernia. Irunen "zangoa"eta "hanka" erabiltzen dira gaztelaniazko "pierna" adierazteko, eta "aztala"gaztelaniazko "pantorrilla" adierazteko. Ez da "berna" hitza ezagutzen.

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga Euskaraz, Irunen barrena

DUNBOA LH6

Hemen Dunboako 3.zikloko ikasleek egindako murala. Gure arteko adiskidetasuna, elkarbizitza, berdintasuna eta errespetua goraipatuaz.

Compraiders: Banaketa zerbitzuen moldeak apurtu nahi dituen proiektua

Compraiders proiektua 2020ko martxoko konfinamenduan zehar sortu zen. Erosketak etxera eramateko zerbitzu honen bitartez, pandemiaren harira bertako merkatari, ostalari eta kontsumitzaileen beharrak asetzeko helburuarekin abiatu zen. Markel Legorburu eta Aitor Etxarrik proiektuaren xehetasunak azaldu dituzte.

Nola sortu zen Compraiders proiektua?
Aitor: Proiektua konfinamenduaren hasieran sortu zen. Bergarako saltokiek funtzionatzen jarraitzeko irtenbide apropos bat behar zutela ikusi genuen, etxera erosketa eramango zituena. Hortaz, loradenda, gozo-denda, fruta-denda, harategi eta arraindegiekin lan egiten hasi ginen, eguneroko erosketa etxeraino eraman ahal izateko.

Markel: Modu honetan, konfinamenduan zehar merkatarientzat negozio bide ezberdinak topatzen saiatu ginen. Egun oso erabiliak diren "Just Eat" edo "Glovo" bezalako plataformekin alderatu, gure ideiak lehiakortasun gehiago eskaini zezakeela ikusi genuen.

Bergaratik zerbitzua Irun bezalako hirietara zabaltzeko asmoa duzue, ezta?

Markel: Konfinamenduan zehar merkatariekin lanean hasi ginen, konfinamenduan premia gehien zuen sektorea zelako. Bien bitartean, ostalari eta ostalaritzako kontsumitzaileek honelako zerbitzuak eskaini eta erabiltzeko prestutasun gehiago dutela ikusi genuen. Orain Irunen 10-15 ostalari eta "raider" edo banatzaileen taldea osatzeko prozesuan murgilduriK gaude, lehenbailehen zerbitzua eskaintzen hasi ahal izateko.

Aitor: Hori da, Bergaran egin genituen proiektuaren bideragarritasuna egiaztatzeko probak. Horren ostean, Tolosaldeara zerbitzua zabaldu genuen. Orain pixkanaka zerbitzua Donostia eta Irun bezalako hirietara zabaldu nahi dugu.

Nolako harrera izan du proiektuak Irunen?
Martkel: Irungo merkatariekin lan egiten hasi ginen, dendaz-denda gure proiektua azalduz. Merkatariek mesfidantzaz erantzuten zuten, ostalarien presturasunarekin alderatuta.

Pandemiak proiektuaren garapena lagundu duela esan daiteke?
Aitor: Bai, esan ohi den moduan, krisialdi guztietan aukera berriak sortzen dira. Guk aukera horietako bat aprobetxatu nahi izan dugu, bertako merkataritza eta ostalaritza babesteaz gainera.

Markel: Hortaz gain, pandemiaren aurretik igartzen zen kontsumo ohituren aldaketarekin loturik dago. Izan ere, apurka-apurka digitalizazioa merkatari txikiengana iristen ari da, kontsumo ohitura berriak sustatzeko beharrak bultzatuta. Pandemiaren ondorioz eraldaketa prozesua azkartu egin zela ikusi genuen.

Zein motako enpresak batu daitezke Compraiders proiektura?
Markel: Ostalari eta merkatarien funtzionatzeko modua desberdina dela ulertzen dugu, beraz, ordutegi eta bezeroen arabera berezi-ten ditugu. Esaterako, merkataritzako erabiltzaileen artean adineko pertsona asko daudela ikusita, funtzionamendua oinarrizkoagoa da eta eskari asko telefono deien bitartez jasotzen ditugu. Ostalaritzan, berriz, udarari begira gure "market place"-a sortu nahiko genuke, hau da, ostalaritza eskaintza guztia bertan batu eta bezeroei erraztasunak emateko.

Tarifak garestiak edo gastu handiak eragiten dituen zerbitzua da?
Aitor: Banaketa zerbitzua eskaintzen duten bestelako plataforma handiek merkatariak itotzen dituztela konturatu gara. Just Eat-en kasuak plataformak erosketaren %14a eskuratzen du eta Glovok, aldiz, ia %33a, saltzaileareN irabaziak era nabarmenean murriztuz. Gure asmoa molde horiekin austea eta saltzaileari errentagarria den zerbitzua eskaini nahi diogu. Guk ez dugu salmenten araberako portzentajerik eskuratzen, tarifa finkoekin egiten baitugu lan. Horrela, merkatari edo ostalari bakoitzak erabakitzen du tarifa horren zein portzentaje ordainduko duen berak eta zenbat ordaindu beharko du azken bezeroak.

Markel: Era horretan, banatzaileei merezi duten moduan ordaintzea lortzen dugu, izan ere, jende gaztea askorentzat lan osagarri bat izan ohi delako. Langile horiek plataforma handiagoekin lan eginez gero baldintza okerragoak izan ohi dituzte. Hortaz, langileen lan baldintzak hobetzeko asmoa ere badugu.

Banaketa enpresa handiagoekin alderatuta, zeintzuk dira zuen abantailak?
Markel: Ostalari askok jada banaketa enpresa handiagoekin lan egiten dutela azaldu ziguten, baina, hala ere gure proiektu aurkeztu eta banaketa zerbitzu hau probatzera gonbidatu nahi izan ditugu. Izan ere, gu ere hemen inguruko biztanleak gara, banaketa zerbitzua eskaintzeaz gainera, lan horri merezi duen balorea eskaini nahi diogu.

Jendeak Compraiders-en banatzaile izateko interesa erakutsi du?
Aitor: Bai, zentzu horretan, harrera ona izan dugu. Oraindik banatzaileen ordutegiak zehazten ari gara eta banatzaile gehiago lortzeko prozesuan murgildurik gaude. Jada zenbait hautagai dauzkagu, baina, ahalik eta jende gehien erakarri nahi dugu.

Orain arteko bilakaera ikusita, nola imajinatzen duzuen proiektuaren etorkizuna?
Markel: Proiektua zabaltzen jarraitzeko asmoari eutsi nahi diogu. Orain dela gutxi azeleratzaile batean sartu gara, proiektua bultzatzeaz gainera, Compraiders profesionalizatu eta digitalizatzen laguntzeko. Udaran gure aplikazio propioa izan nahiko genuke, bezeroen irisgarritasuna laguntzeko.

Aitor: Era berean, proiektua geografikoki zabaltzen jarraitu nahi dugu, Bizkaia, Araba edo Nafarroako herri eta hiri desberdinetara zerbitzua hedatzeko.

2021eko EuskarAbentura espedizioan izena emateko epea zabalik dago

EuskarAbentura elkarteak 2021eko espediziorako izen-emate epea zabaldu du. Euskal Herriko eta diasporako 16-17 urteko gazteek izango dute abenturan parte hartzeko aukera, alegia, 2004 eta 2005 urteetan jaiotakoek.

Lanak aurkezteko epea: Martxoaren 12ra arte. Jasotako lan guztiak Eusko Ikaskuntza eta PuntuEus fundazioarekin elkarlanean ebaluatuko dira eta 120 lan onenen egileek espedizioan parte hartzeko aukera izango dute, inolako tasarik ordaindu gabe.

Hautagaitza aurkezteko: Minutu bateko aurkezpen bideoa eta banakako proiektu bat aurkeztu beharko dute, elkarteak proposatutako formatu eta gaien artean aukeratuz.

Informazio guztia: www.euskarabentura.eus webgunean.

Praktikak EBko Kontseiluan

5 hilabeteko ordaindutako 100 beka praktiko. Beka horietan, ikastunak departamento bati atxikita egongo dira, eta esleituta duten taldeko kide gisa lan egingo dute. Egitekoen artean hauek daude: bileretara joatea, aktak idaztea eta gai jakin bati buruzko prestakuntza edo ikerketa-lanak egitea.

Epea: 2021eko martxoaren 15ean.

Banatzaile bila gabiltza

Banatzaile gisa egunean 4 ordu lan egitea eta orduko 10-15 euro irabaztea gustatuko litzaizuke?

Furgoneta edo autoa besterik ez duzu behar, eta pertsona ona izatea.

Enpresa: Compraiders. Enpresaren helburua da denda txikiei laguntzea, etxez etxeko banaketa-zerbitzua eskainiz.

Eremua: Irun - Hondarribia.

Interesa baduzu edo informazio gehiago nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan: 619 731 502 (Aitor) - 627 014 572 (Markel)

IGazteren Buletin Elektronikoa

Enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi eta boluntariotzari buruzko informazio gaurkotu guztia jaso nahi duzu? Izena eman ezazu iGazteren buletinera! Interesatzen zaizun informazio guztia zure posta elektronikoan jasoko duzu!

Buletinean izena emateko esteka iGazteren webgunean topatuko duzu. Hortaz gain, iGazteren webgunean buletinaren azkeneko alea kontsultatzeko aukera izango duzu beti.

Irungo IGazte

CBA Kultur Gunea - San Juan plaza, z/g

www.irun.org/igazte - igazte@irun.org - 943 505 444 - Whatsapp: 607 771 173

Zeintzuk dira Pirinioetako gazteen kezkak?

Pirinioetako Lan Elkarteak, Akitania Berria eta Okzitaniako eskualdeekin, Andorrako printzerriarekin eta Euskadi, Nafarroa, Aragoi eta Kataluniako autonomia erkidegoekin elkarlanean, Pirinioetako gazte guztiei zuzenduriko inkesta bat plazaratu du.

Galdetegia 15 eta 35 urte bitarteko gazteentzat pentsatuta dago, eta erantzuten duten pertsonen profilari buruzko informazioa biltzea du helburu: zertan aritzen diren, non bizi diren, baina, batez ere, Pirinioetako gazteak zerk kezkatzen dituen jakiteko.

Inkesta Pirinioetako Lan Elkarteko bost hizkuntzetan eskuragarri dago eta Gazteriaren Foru Transpirenaikoan parte hartzen duten gazteek aukeratutako gaiak jorratzen ditu. Helburua herritar gazteen kezkak ezagutzea da, ondoren Gazteriaren Foru Transpirenaikoaren lehen topaketan kezka horietan sakondu ahal izateko. Topaketa 2021eko udaberrian egingo da, Erasmus+ programak finantzatutako Pyrenean Youth proiektuaren barnean.

Inkesta erantzuteko epea 2021eko otsailaren 19ra arte.

Otsailak

17

Kontu kontari haurrentzat

Zer: "Zorte txarreko otsoak" ipuina kontatuko du Maite Frankok.

Non: CBA Udal Liburutegian.

Ordua: 17:30etan.

Sarrera: Doan.

18

Musika

Zer: Ruper Ordorikaren kontzertua, Arkaitz Miner, Lutxo Neira eta Hasier Oleagaren konpainian.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

19

Zinema

Zer: Pablo Agüerok zuzendutako Akelarre filmaren emankizuna.

Non: Amaia Kultur Zentroa.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Iraupena: 90 minutu.

Hizkuntza: Gazteleraz, euskarazko azpitituluekin.

20

Antzerkia

Zer: Ikimilikiliklik ikuskizuna, Marie de Jongh konpainiaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

25

Helduentzako antzerkia

Zer: "Utzi mezua seinalearen ondoren" ikuskizuna Ttanttaka taldearen eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Iraupena: 90 minutu.

Hizkuntza: Euskaraz.

28

Musika

Zer: Olatz Salvadorren abeslariaren kontzertua Aho uhal izeneko lana eta bere berrikuntzak aurkezteko.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00tan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Denbora-pasen emaitzak



T	W	N	M	P	W	U	K	B	S	X	J	M	I
U	N	G	A	E	V	Z	U	B	P	E	I	O	Q
V	L	Y	S	J	K	L	T	Q	F	T	L	Z	D
V	P	Q	K	K	B	S	W	M	J	R	E	O	H
A	J	U	A	X	O	Q	A	B	C	B	O	R	X
P	O	Q	R	W	I	N	Q	W	Z	U	R	R	V
W	F	Z	A	Q	Q	T	F	B	H	W	D	O	D
T	V	W	Z	R	E	R	D	E	H	W	E	K	U
V	X	S	Q	Z	I	G	Z	H	T	W	X	R	B
D	X	A	H	C	O	J	R	R	U	I	A	F	D
H	D	P	N	P	U	R	P	U	R	I	N	A	E
R	G	S	S	O	P	H	S	U	P	J	I	R	A
M	A	K	I	L	L	A	J	E	G	U	C	S	V
K	A	H	W	O	K	G	E	H	Z	G	N	I	O



6	1	9	7	4	5	8	3	2
8	5	7	1	2	3	4	9	6
4	2	3	8	6	9	1	5	7
7	4	5	2	9	1	6	8	3
9	8	1	3	7	6	2	4	5
2	3	6	4	5	8	7	1	9
3	6	4	5	8	2	9	7	1
1	7	2	9	3	4	5	6	8
5	9	8	6	1	7	3	2	4

Jaunartzeak 2021

ERREPORTAJEA+ ALBUMA

155€ -tik aurrera

Argazkilariak
Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
hola@fotogoverbodas.com
www.fotogoverbodas.com

FOTOGRAFIA ESTUDIO GO VER™